

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-AZAROA-433.ZENBAKIA

KARKARA


ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



HAUR HEZKUNTZA

**BEGIRUNEZKO
BEGIRADAK**



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

**Ubegun industria gunea, 4
AIA-ORIO**

22, 26, 28,
49, 55 eta 60
eserleku dituzten
literadun autobusak
ditugu.

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Eusko Gudari, 4
© 943-09 28 27 ☎ 623 47 57 52
ardoraaraindegia@yahoo.com
ORIO

edaritegia **Antilla** jatetxea

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terminza ederrarekin
giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
24 ordu

fontana iturgintza
iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudariaren kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37





KARKARA 433

2021-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Iñigo Gaiton
<i>Aitzakia onak</i> | 32 | Erreportajea: Xabier Lizaso
<i>Anduko Pabxi, Kukuarri eta Zaragueta</i> |
| 6 | Hitz tantak Iñigo Gaiton
<i>Joxean Jaka</i> | 36 | Argazki galeria
Aiako XV. Argazki Lehiaketa
<i>Aia, zabal bezain eder, argazkitan</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Asier Sanchez
<i>Zorteko, Kanarietan</i> | 38 | Iritzia Eli Huegun
<i>Hamar urte</i> |
| 10 | Gutunak | 41 | Euskara Orioko Herri Ikastola /
Zaragueta Herri Eskola <i>Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu hamar urte barru?</i> |
| 12 | Herrian galdezka | 42 | Plazan bazan |
| 14 | Erreportajea Aitziber Arzallus eta
Onintza Lete Arrieta
<i>Begirada berriak eraikitzen</i> | 44 | Zerbitzuak |
| 25 | Ikasleak idazle
Zaragueta Herri Eskola | 45 | Agenda |
| 26 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
Hildakoentzat hitz biziak | 46 | Hasi bertsotan Ibon Arruti Aldape |
| 30 | Iritzia Orioko xaltzerak talde
feminista. <i>A-25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna</i> | | |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua
Aitziber Arzallus
Erredaktore taldea
Iñigo Gaiton
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Rikardo Uzkudun
Onintza Aiestaran

Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Iñaki Iturain
Xabier Lizaso
Zorione Mendez
Eli Huegun

Asier Sanchez
Iñigo Exposito
Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIKO
udala



BODEGAS
Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax 915 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa



ZUDUGARAI

Gabriel's Tradition
DENOMINACION DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 85 · Fax: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com



Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA


687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN



ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



Katu Horia

albaritaritza klinika


ESTROPALARIZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIAK
668891129



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



LASTER
DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Aitzakia onak



IÑIGO GAITON

Edozein aitzakia da ona, herriko hezkuntza zentroetako langileak aldizkariaren azalean juntatzeko. Lehendik nahikoa lan ez, eta pandemiak are gehiago zaildu du eskoletako panorama azken bi urteotan, eta haien lana azaleratzea beti da garrantzitsua. Etorbizuna are gehiago lausotu den garai zail hauetan, inoiz baino ozenago aldarrikatu behar da hezkuntza dela gizarte garatuago batera bidea egiteko gako nagusia.

Edozein aitzakia da ona, haurtzaroko urteen garrantzia azpimarratzeko. Oti 6 urtera bitarteko umeekin lan egiten espezializatutako hezitzaileekin osatu da aldizkariko erreportaje zentrala, eta ez du bazterrean uztekorik. Eider Salegik udan aurkeztu zuen doktorego tesitik abiatuz gorpuztu dira testuak. *Irakaslearen begirada sentikorra eraikitzen* izenburua eman dio bere azterlanari, eta laburbilduz, hau da ideia nagusia: hezitzaileen begirada eraldatzea ezinbestekotzat jotzen du Salegik, haur bakoitzaren berezkitasuna osotasunean ulertzeko eta bere gaitasunak garatzeko bidean. Barrura begira jartzen ditu hezitzaileak, haien garapen pertsonalaren inportantzia azpimarratuz.

Edozein aitzakia da ona, haur eskoletan azken urteotan egiten ari diren borroka gogora ekartzeko. Maria Maestra Haurreskolako Elixabete Uria hezitzaileak aldizkarian aldarrikatzen duen modura, haur eskolak hezkuntza sistema publikoaren parte izan behar dute, eta doakoak guraso guztientzat. Kapitalismo basatiak familien eguneroko bizitza gero eta gehiago estutzen duela kontuan izanik, haur eskolek paper erabakigarria jokatzen dute kontziliazioan eta seme-alaben heziketan. Zentroetako langileen baldintzek ahalik eta onenak izan behar dute, haien lanak gizartearen duen pisua gero eta handiagoa delako.

Edozein aitzakia da ona, herritar batek bidalitako artikulua ederrari aldizkarian toki egiteko. Oraingo honetan, Iñaki Iturainen bidez iritsi zitzaigun Xabier Lizasok idatzi duen artikulua publikatzeko proposamena. Kosta egiten da aldizkarirako sinadura berriak lortzea, eta hemendik, gure esker ona biei. Artikulu samurra idatzi du aurrean hil den Andu baserriko Patxi Lertxundiri buruz. Askotan izaten dut zalantza hau buruan: adineko herritarren interesko testurik izango ote du oraingo zenbakiak? Hedabideen erronka gazteengana eta publiko berriengana iristea dela errepikatzen da sarri. Digitalizazioak bultzatutako prozesu horretan, edadeko irakurleak galtzeko arriskua ikusten dut nik. Zoritxarrez, gu ere haiengandik urrundu garenaren sentsazioa izaten dut tarteka: batetik, gaien aukeraketagatik, eta bestetik, edukien tokikotasuna mantentzeak eskatzen duen exijentziagatik. Oraingoan behintzat, edadekoek gustura leituko dute Lizasok idatzitako artikulua. ■■■

**DIGITALIZAZIOAREN
GARAIOTAN, EDADEKO
IRAKURLEAK GALTZEKO
ARRISKUA IKUSTEN
DUT NIK**

Joxean Jaka

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Aurtengo Orioko Surf Txapelketan, Joxean Jakak (Orio, 1985) eskuz egindako trofeok distira berezia lortu zuten sari banaketan, olatu artean ondoen ibili ziren surflariekin batera. Hondartzan bildutakoek ikusi ahal izan zuten modura, artista da Jaka, hitzaren zentzu bete-betean. Eskuz *sancheski* ederrak egiten ditu; bideoaren batean jasota dagoen modura, 1980ko hamarkadako *frontmanen* pare ere agertu izan da eszenatoki gainean, eta hori gutxi balitz, "txatarrarekin artea" egiten ere badaki.

Nolatan animatu zara surf txapelketarako garaikurrak egitera?

Nire lantokian du sorburua honek guztiak. Fundiziotik burdin pieza "zikinak" jasotzen ditugu, eta prozesu baten bitartez, beste itxura bat ematen diegu. Behin baino gehiagotan, burdinak borobil itxura hartzen zuela ikusten nuen, eta, horri, olatu on baten itxura hartzen nion: tutu borobil batekin hausten ari den olatuaren forma. Laneko soberakinekin hasi nintzen olatuak sortzen, eta hori berezia da niretzat: txatarretara doazen hondakinekin artea egiten saiatzea. Duela hiru urte egin nuen aurreneko figura.

Fabrikan itxura eman eta gero, nola jarraitu zenuen lanean?

Hurrengo urratsa, rotaflexarekin eta mailuarekin olatuaren irudia fintzen joatea izan zen, xehetasunak markatzen. Lan gehiago eman zidaten gainontzeko elementuek, horiek egin eta non kokatu erabakitzeak. Harritxo batzuk baditu olatuak inguruan. Bada, horiek, Indonesiatik ekarritako koral zatitxoak dira. Surflari txikia, berriz, plastiko zati batekin eta metxeroarekin eginda dago. Gero, margotzeak ere bere lana izan du.

Azpimarratu nahiko nuke, surflaria egiterako orduan, Joseba Agote hartu nuela inspirazio modura. Berak du estilorik onena Orioko ezker olatuan; maisua da bizkarka surf egiten.

Sari banaketan zeuk eman zenizkien garaikurrak irabazleei.

Gazi-gozoa izan zen momentua niretzat. Barru-barrutik egindako artelanak izan dira garaikurrak, maitasun osoarekin egindakoak. Tailerrean ari nintzen bitartean, askotan irudikatzen nituen artelan horiek irabazleen eskuetan, eta ez zitzaidan toki hoberik okurritzen lan horientzat. Alde horretatik, momentua ederra izan zen.

Baina?

Bestalde, politika arloari eta euskal gatazkari lotu-tako kontuak tarteko, urte batzuetan surf taldetik aldenduago ibiltzea erabaki nuen. Azken urteotan, Zarautz aldean ibili naiz surfean, Orion baino gehiago. Hala ere, beti maitatu izan ditut hemengo hondartzako lagunak, eta gaztetxotatik han bizitako guztia barru-barruan daramant. Horregatik guztia-gatik, sentimendu kontrajarriak izan nituen txapelketako sari banaketan. Urte hauetan guztietan ikasi dudana zera da, denbora ukendu ona izan daitekeela galdutako lagunak berreskuratzen joateko. Eta beste gauza bat ere bai: lagunak galtzea errazagoa dela berreskuratzea baino.

Nondik datorkizu eskulanetarako joera?

Umetatik. Horrekin jaio nintzen. Eskola garaian, ez nintzen behin ere ikasle ona izan, baina plastikan ondo moldatzen nintzen. Nire aurreneko nota ona, 9 bat edo, Nekane Larrañaga irakasleak jarri zidan. Aitak ere bazuen eskulanetarako afizioa, eta gogoan dut Gabonetan etxean Jaiotza jartzen laguntzen niola. Beti gustatu zait maketekin eta halakoekin jolastea.

Orain zer duzu eskuartearen?

Surf txapelketako garaikurrak bukatuta, fase bat itxi dut. Beste zerbaiti ekingo diot. Besteak beste, *sancheski* pare bat egiteko eskariak ditut... Egia esan, tarteka kostatu egiten zait sorkuntza lanei segida ematea, eta hori da nire bekatua: ez naiz oso konstantea... kar-kar-kar. Intentsoa bai, zentratzen naizenean, baina nahi baino diziplina gutxiago dut. ■■■



Zorteko, Kanarietan

ARGAZKIA ETA TESTUA: ASIER SANCHEZ

Duela pare bat urte Kanarietara bidaiatu nuen bi lagunekin. Itsas-parteei erreparatu gabe erosi genituen hegazkin txartelak eta, egia esan, lau egunetan olatu oso onak tokatu zitzaizkigun. Argazki honetakoa ez zen egun on horietako bat izan. Baldintza kaskarrekin, irlan batera eta bestera genbiltzan, denbora pasa. Nahikoa ezkutuan dagoen olatu bat zegoela esan ziguten bertakoek, eta haren bila abiatu ginen. Iristerako, marea behe-regi zegoen, eta olatuak lehor-lehor hausten ziren labazko hondoaren kontra. Halako batean, olatu aldi handi bat sartu zen, eta bertako surflari batek olatu borobil hau hartu zuen. Ni igerian nindoan ur sakonetara, olatuak azpian ez harrapatzeko, eta begiratu gabe egin nuen argazkia. Zalantzarik gabe, zortea aldeko izan nuen. ■■■■





Elkartearen egoeraz hitz egiteko bilera ireki baterako deia

Mandalara elkarteak

Orioko Mandalara Kultur

Elkarteko lagun eta kide ohiei zuzendu nahi diegu mezu hau. Hasteko esan beharra dugu, azkenaldian, pandemiaren eta barne aldaketa batzuen ondorioz, elkartearen izenean ezin izan ditugula ekintza asko antolatu. Horrez gain, zalantzazko zurrumurru batzuk iritsi zaizkigu elkartearen barne egoerari buruz, eta horiek gehiagora joan eta gaizki ulertuak sortu aurretik, publikoki argitu nahi genuke momentu honetan gure egoera zein den. Mandalara Kultur Elkartek jakinarazi nahi dizue elkarteak ez dela desegin. Nahiz eta elkarteak kudeatzen duen Zuzendaritza Batzordean aldaketa batzuk egon diren, elkarteak bere sorreran antolatu zituen ekintzetara itzuli nahiko luke, orain arte jorratutako gaietan herritarrek dituzten beharrak jasoz, elkartearen esku dagoena eginez, egoera desberdinak kudeatzeko tresnak erraztuz, udalaren, herriko beste talde eragile eta herritar boluntarioen laguntzarekin, denak elkar lanean. Azkenik, mila esker orain arte zuzenki edo zeharka, Mandalaren zati izan zareten guztioi, eta etorkizunean parte hartu nahi duzenoi esan, ongi



mandalara taldea

etorriak izango zaretela. Gaur egun daukagun egoera zuzentzen denean ekingo diogu berriz ere, norbanakoaren barne lana lantzen duten ekintzak antolatzen. Aipatutako guzti hori azaltzeko eta elkartearen egungo egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko, bilera ireki batera gonbidatzen zaituztegu, azaroaren 9an, asteartea, 19:00etan, Orioko Kultur Etxean.

Agur bero bat. ■■■

Zer daukagu inguruan?

IRRIPARRA BERRESKURATU!

Erraustegiaren kontrol herritarra Zubieta Lantzen

LIBRE HAZITAKO OILOEN ARRAUTZAK DIRA INGURUKO GAI KUTSAKORRAK GIZAKIENGANA IRISTEKO BIDEETAKO BAT

elkartek eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak sustatutako ekimena da, herritarren *crowdfunding* bidez eta zenbait instituzioren laguntzaz ordaindua. Zubieta Lantzenek eta EAMek ToxicoWatch (TW) Herbehereetako fundazioari eskatu zioten Zubietako erraustegiaren biomonitorizazio ikerketa egiteko, "herritarrek ezin direlako fidatu ez erraustegia kudeatzen duten enpresen eta ez Gipuzkoako agintarien kontroletan; enpresak eta agintariak denak saltsa berean nahastuta baitaude, geroztik Arkaitzerrekan zientoka arrain hil zituen kutsaketaren kontrolik ezak erakutsi zuen moduan".

ToxicoWatch fundazioak Basi-lea eta Stockholmeko Itunetako lan-taldeetan, Nazio Batuen Era-kundearen barruan parte hartzen du, eta berak finkatu du urtez urte zer aztertu. Alde batetik, libre hazitako oiloen arrautzak, berez adierazle onak direlako lurrian egon daitekeen dioxina maila ezagutzeko eta, gainera, jendeak hain ugari jaten dituen arrautzak direlako inguruko dioxina eta beste POP kutsakorrek gizakiengana iristeko bide nabarmenetako bat. Egunotan erraustegiaren inguruko bost kilometroko radioan dauden zenbait oilategitako arrautzak bildu dituzte.

Bestalde, landare, lur, ur eta sedimentuei dagokienez, laginak hartu dira Zubietako erraustegia-

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Azaroaren 10ean Etxeluze Gaztetxean azterketa horien emaitzen berri izango dugu Maider Usabiagak bideratuta egingo den hitzaldian, Irriparra berreskuratutik antolatuta.

Guztiok gonbidatuta zaudete! Irriparra berreskuratutik! ■■■

JAIOBERRIAK

- **Peru Beldarrain Uranga.** Orion, irailaren 30ean.
- **Kira Amundarain Gomez.** Orion, urriaren 7an.

- **Shua Arruti Beloki.** Orion, urriaren 15ean.

HILDAKOAK

- **Luisa Esnal San Sebastian.** Orion, urriaren 3an. 90 urte.
- **Santiago Zubillaga Oliden.** Orion, urriaren 5ean. 88 urte.
- **Jose Manuel Eizagirre Ezeiza.** Orion, urriaren 5ean. 68 urte.
- **Alberto Agirre Zubizarreta.** Aian, urriaren 10ean. 86 urte.
- **Alberto Agirre Zubizarreta.** Orion, urriaren 19an. 93 urte.

ren bi kilometroko inguru batean, dioxinak, dioxinak bezalako PCBak, aktibitate estrogenikoa eta metal astunak analizatzeko.

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutututa aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali azaroaren 18a baino lehen.


Saria: Bodegon Sarasuan 2 pertsonentzako otordua izango da. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urriko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen: 35. orrialdean zegoen ezkutututa, eta **Alex Mateos Oliden** bazkidea izan da irabazlea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: *karkara@karkara.eus* edo erredakziora eskura ekarri -Oriko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Zer iritzi duzu eskoletan haur txikiekin egiten den lanaren inguruan?



MARKEL ELIAS

Gaur egun, umea jartzen da hezkuntza prozesuaren erdigunean. Garrantzia handia ematen zaio haurra ikasgelan eroso sentitzeari, eta lan gehiago egiten da goxotasunetik. Hezitzaileen prestakuntza ere aldatzen joan dela iruditzen zait, eta haurrei beste modu batera erreparatzen zaie orain. Lehen, ikasleak ebaluatzeko espediente batzuk betetzen ziren eta gutxi gehiago, garrantzitsuena zen mailak pasatzen joatea, haurren garapen pertsonala gehiegi kontuan izan gabe. Bestalde, Konfiantzaren Pedagogia programaren bidez, gelakoekin bakarrik harremantzeko joera apurtu dela ikusi dut, eta hori ona iruditzen zait. Hobekuntza modura, ikasleen eskolako sartu-irtenak malguagoak izatea gustatuko litzaidake.



ENEKO GOZATEGI

Nire iritziz, gauzak asko eta onerako aldatu dira gu umeak ginenetik. Guri ez zitzaigun gustatzen ikastolara joatea, oroitzapen hori dut. Orain, nire semeak gustura joaten direla ikusten dut. Ikasgela barruko dinamika aldatu izanaren seinalea da hori. Orain, haur bakoitzaren berezitasunei eta garapenari arreta handiagoa jartzen zaie, eta hezkuntza askoz ere pertsonalizatuagoa da lehen baino, zorionez. Lehen ikasle onak eta txarrak zeuden, eta orain, ikuspegi hori zabaldu egin da, haur bakoitzaren gaitasunak hobeto detektatzen dira. Gure txikien kasuan, Konfiantzaren Pedagogia programaren barruan egin zuten Haur Hezkuntza, eta asko gustatu zitzaigun. Guraso bezala, asebeteta geratu ginen hezitzaileek egindako lanarekin.



IDOIA URRUTIA

Gure etxeko bi alabek hezitzaile oso onak izan dituzte haur eskolan eta eskolan. Gertuko tratu goxoa jaso zuten ume txikiak zirenean, eta konfiantza giroan pasatu zituzten lehen urte horiek. Gogoratzen dudanez, biak oso gustura ibiltzen ziren ikasgelan, hezitzaileekin eta laguntxoekin jolasean. Umeen poztasun hori ikustea garrantzitsua izan zen niretzat, guraso modura. Lehengo garaiekin konparatuz, hezkuntza prozesuko metodologiak garatuagoak daude orain, eta arreta handiagoa jartzen zaie ikasleen sentimenduei. Dena den, metodologia berritzaileak bezain garrantzitsua da bokazioa duten hezitzaileak izatea hezkuntza prozesuko lehen urteetan. Bestalde, lehen ere irakasle oso onak zeudela azpimarratu nahi nuke, badituzte batzuk gogoan. ■■■



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behe C · ZARAUTZ
kukuarri@kukuarri.com




libe dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es



OINARRI PODOLOGIA ZENTROA

Arrantzale kalea, 63 behe
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



ILKAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behe · ORIO
943-13 47 29



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44



Begirada berriak eraikitzen

Ainhoa Zumeta Zaragueta ikastetxeko zuzendaria da, Mari Jose Garate Orioko Herri Ikastolako Haur Hezkuntzako hezitzailea, eta Elixabete Uria Orioko Haurreskolakoa. Eider Salegik, berriz, Mondragon Unibertsitatean jarduten du biharko irakasleak trebatzen, eta Haur Hezkuntzan doktore egin berria da *Irakaslearen begirada sentikorra eraikitzen* tesia onduta. Azken urteotan 0 eta 6 urte arteko haurrak hezteko moduan gertatzen ari diren aldaketen lekuko ez ezik, eragile ere badira lau emakume hauek. Horietaz eta datozen urteetarako aurreikusten dituztenetaz luze eta zabal hitz egin dute.

Testua: **Aitziber Arzallus eta Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Umeek betidanik eman izan diote atenezia Eider Salegiri (Orio, 1981). Unibertsitate ikasketak egiten hasterako, bazekien haiekin zerikusia zeukan zerbaitean bukatu nahi zuela. "Etorkizunera begira jartzen nintzen, hurrei eta gazteei laguntzen irudikatzen nuen neure burua". Hori zer modutara egin nahi zuen ez zeukan horren garbi, baina psikologia ikastea erabaki zuen, hezkuntza aldetik jotzeko intentzioarekin. Praktikak egitea egokitu zitzaionean, saiakera egin zuen, institutu bateko orientatzaile izatea zer zen probatuta. "Baina esperientzia hark ez ninduen asebate, ikusi nuelako lan hori aukeratuz gero ez nuela edukiko umeekin zuzeneko harremanik, eta ezta txikitatik haien garapenean eskuhartzeko aukerarik ere".



Umeengandik hurbil egoteko modu ziurrena Haur Hezkuntzako irakasle izatea zela iritzita, bide horri heltzea erabaki zuen. "Iruditu zitzaidan errazagoa izango zela irakasle izan eta psikologian ikasitakoak praktikan jartzea, psikologo izan eta hezkuntzan nolabait eragin ahal izatea baino". Irakasle izateko prestatzen ari zela, psikomotrizista bat ezagutu zuen. "Haren eskoletara joaten hasi nintzen, eta konturatu nintzen hori zela nik egin nahi nuena. Azaltzen zigun haurra zer zen, haurra nola ulertu behar genuen, haurrak gelan zer jokabide zituen, haurrarekiko zer begirada eduki behar genuen, irakaslearen rolak nolako izan behar lukeen... Galetan sakondu ahala, ikusten nuen horiek zirela niri benetan interesatzen zitzaizkidanak, eta psikologia ikasten horregatik hasi nintzela, horrelako gauzetan sakondu nahi nuelako". Berea hori zela konbentzita, hezkuntzako psikomotrizitatea ikasteari ekin zion, eta psikologoa izanda terapia arloa jorratzeko aukera zuenez, horretarako ere prestatu egin zen.

Bitarte horretan, lanerako aukerak izan zituen, eta Elorrión, Orion eta beste hainbat lekutan ibili zen Haur Hezkuntzako irakasle, ordezkapenak egiten. "Ordezkapen horietako bat bukatzen ari nintzela, Mondragon Unibertsitatean lan egiteko aukera sortu zitzaidan, hasiera batean ikasgai bat edo bi emateko. Beste zerbaite sortu bitartean baiezkota ematea erabaki nuen, eta horrelaxe hasi nintzen". Lasai hasi zen, lehendabiziko bi hilabeteetan berari zegozkion eskolak bakarrik ematen zituen, "baina hirugarren hilabeterako sartu nintzen han eta hemen, eta konturatu nintzenerako unibertsitateko gauzetan erabat murgilduta nengoen".



Gero, gainera, aukera izan zuen unibertsitateko Hazitegi ikertaldeko partaide izateko, eta horrek bide eman zion buru-belarri sartzeko haurraren ikerketari eta garapenari lotutako gaietan.

Curriculumari ginda

40 urterako hori dena egitea nahikoa izango ez balitz bezala, berriki beste urrats bat egin du Salegik. Orain arteko ibilbidean eta batez ere unibertsitatean ikertzaile eta irakasle dabilen urteotan pilatu duen jakintza eta esperientzia oinarri hartuta, eta horren interesgarri deritzon hezkuntza esparruari bere ekarpena egiteko asmoarekin, *Irakaslearen begirada sentikorra eraikitzen* izenburu duen tesia ondu du. Hilabete luzeetako lanaren emaitza uztailean aurkeztu zuen Eskoriatzako campusean egindako ekitaldi

batean, eta kalifikazio gorena —bikain *cum laude*— erdietsita, hezkuntzan doktore egin da oriotarra. Esan liteke horrekin ginda jarri diola bere curriculumari.

Tesiarekin Haur Hezkuntzak daukan garrantzia aldarrikatu nahi izan du. "0-6 urte arteko etapan haurra eskolaratzea derrigorra ez denez, badirudi ez daukala horrenbesteko garrantziarik, etapa horretan esperimentatzea libre dela, eta gauzak horren ondo egiten ez badira ere, gero badagoela ikasteko denbora, LHn eta DBHn hasten delako hezkuntza prozesu benetako eta serioa. Frogatuta dago, ordea, hori ez dela horrela, 0-6 etapan finkatzen direla haurraren oinarriak, eta izugarritzko eragina izango duela bere garapenean; hau da, etapa horrek erabat baldintza dezakeela umea, gerora izango dituen harremanak, egoteko modua, mundua ikusteko modua eta abar".

Etap hori horren garrantzitsua bada, hala izango da etapa horretako irakasleek jokatzen duten rola ere. "Irakasleok harremanetan profesionalak gara, gure lanbidea harremanetan oinarritzen baita, eta irakaslearen zeregin nagusia da haur bakoitzarekin harreman esanguratsu bat eraikitzea, ume horrek konfiantza sentitzeko. Izan ere, ume horrentzat irakaslea izango da atxikimendu irudi bat, bera delako umearen erreferentzia ama edo aita falta denean, eskolan pasatzen dituen ordu horietan guztietan. Eta konfiantzazko harreman hori eraikitzeko eta irakaslea atxikimendu irudi bilakatzeko, ezinbestekoa da sentikortasuna".

Baina zer da sentikortasuna? "Sentikortasuna da pertsona batek daukan gaitasuna besteak dituen beharrez konturatzeko, behar horiek interpretatzen jakiteko, eta horiei modu koherente eta esanguratsu batean erantzuten jakiteko. Ume batzuekin hasieratik sentituko dugu *feelinga* esaten dioguna, baina ez denekin, eta hori eraikitzea izango da gure egitekoa, harremanetan profesionalak garelako". Kasu horietan, lanketa egitea irakasleari dagokio, eta lanketa hori nola egin jakin egin beharko du. "Inportantea da norbere buruari begiratu eta hausnarketa egitea, jakiteko zergatik ume horrekin daukadan horren *feeling* gutxi. Egin ezin dudana da

**"IRAKASLEOK
HARREMANETAN
PROFESIONALAK GARA,
GURE LANBIDEA
HARREMANETAN
OINARRITZEN DELAKO"**

**"IRAKASLE ESKOLETAN,
LEHENGOEZ GAIN,
BESTE GAITASUN
BATZUK ERE LANDU
EGIN BEHAR DIRA"**

ume hori bazterrean utzi, nire betebeharra baita ume horri eskaintzea beste guztiei eskaintzen diedan gauza bera. Horretarako, kapaz izan beharko dut sortzen didan emozio hori eraldatzeko eta daukadan onena eskaintzeko".

Irakasle batzuk urduritzen dira negar asko egiten duten umeekin; beste batzuk, oso isilak diren eta parte hartzen ez duten umeekin; edo geldirik egoten ez dakitenekin. "Azkenean, urduritzen gara gure historia pertsonala nolabait ukitzen duten elementu horiekin. Negar egiten duen ume batek oso urduri jartzen banau, neure buruarekin lanketa egin beharko dut jakiteko zer gertatu den nire bizitzan negarrak horren urduri jartzeko, eta gauza bera oso jarrera pasiboa duten umeek urduritzen banaute, edo asko mugitzen direnek. Gauza horietaz konturatzeak sekulako garrantzia du, kontziente ez bagara albo kalteak sor ditzazkegulako haur horiengan".

Haurrekin dituen harremanez gainera, ikasleen familiarekin dituen harremanak ere landu eta zaindu egin behar ditu irakasleak, kontuan izanda familia bakoitza mundu bat dela eta bere berezitasunak dituela; eta zaindu egin behar ditu gainontzeko lankideekin dituen harremanak ere. "Umearen ongizatea da erdigunean jarri behar dena, eta oreka topatu beharko dugu, elkarlanean jardutea ezinbestekoa delako".

Prestakuntzarako erreminta

Irakasle eskoletan orain arte irakatsi izan dutena baliozkotzat jo du Salegik, baina ez nahikotzat, alegia, lehengoez gain bestelako gaitasun batzuk lantzeari ezinbestekoa deritzola. "Orain arte unibertsitatean irakatsi izan dizkiguten gauza horiek guztiek, garrantzi handia dute eta landu egin behar dira, baina alderdi teoriko eta kontzeptual horietaz aparte beste gaitasuna batzuk ere beharko ditu irakasleak, pertsonaren jarrerarekin lotuagoak daudenak; esaterako, gaitasun sozioemozionalak, norbere buruaren eta gorputzaren kontzientzia izatea, haurraren gaitasuna, erresilientzia, norbere ongizatea kontutan izatea, eta inplikazioa eta konpromisoa. Adibidez, Mondragon Unibertsitatean hasita gaude alderdi horiek jorratzen, eta nire tesia ere horretara dator, formazioan gakoak zeintzuk izan daitezkeen esaten duen ekarpen bat da".

Salagiren tesia irakaslearen begiradan zentratzen da, zehazki begirada horren sentikortasunean, eta begirada sentikor hori eraikitzeak gakoak zeintzuk diren izendatzen eta xehatzen ditu. Irakaslearen begirada sentikorra dionean, irakaslearen begiratzeko moduaz ari da, "begirada horrek eragin zuzena baitu irakaslearen beraren portaeran eta jarduera profesionalean".

Kontzeptu horren definizioa osatzeko, bost alderdi hartu ditu kontuan: haurrarekiko begirada, hezkuntzarekiko begirada, irakaslearen rolaiekiko begirada, bestearekiko begirada eta norbere buruarekiko begirada. Tesian alderdi bakoitza sakon garatu badu ere, honela laburbildu ditu: "Begirada sentikorra garatua duen pertsonak haurraren gaitasunean sinesten du. Ondorioz, haurraren zentratutako eskuhartzeak jarriko ditu martxan, eta haurra seguru, gustura eta konfiantzan egoteko eta bere gaitasunak garatzeko testuinguruak prestatuko ditu. Haurren prozesu naturalen behatzaile bihurtuko da, positiboa, goxoa, sentikorra, abegikorra,



"IRAKASLEAREN BEGIRADAK ERAGIN ZUZENA DU IRAKASLEAREN BERAREN PORTAERAN ETA JARDUTEKO MODUAN"

ZAZPI IRAKASLE ETA ZAZPI BEGIRADA AZTERTU DITU, EZ BAITAUDE BEGIRATZEKO MODU BERA DUTEN BI LAGUN

ulertorra, emozionalki konektatzeko gaitasuna duena, haurren autonomia bultzatzen duena, mugak argi jarri baina malgutasunez jokatu duena, eta boterea indarrez erabiliko ez duena". Irakasle sentikorraren helburua haur bakoitzaren berezitasunetara iristea dela dio.

Horretaz gain, irakasle horrek errespetuz begiratu die besteei, ulertorra izango da eta desberdina dena onartu egingo du. "Ez du inor aldarazi nahiko, ez da sarkorra izango, bestea ulertzen saiatuko da, gaitasun sozioemozionalak izango ditu, eta arduraz eta konpromisoaz jokatu du. Identitate sendoa eta landua izango du,

ziurtasunez erantzungo dio hezkuntza jardunari, eta egoera berrietara moldatzeko prestutasuna agertuko du. Gainera, bere burua zaindu egingo du eta etengabeko prestakuntzari garrantzia emango dio".

Baina zerrenda egitea errazagoa da ezaugarri horien guztien jabe izatea baino, zenbait kasutan, nahi izatea ez baita aski. Izan ere, pertsona baten begiratzeko modua aurretik bizi izan dituen gorabeherak edota une horretan bizi dituenek baldintzatzen dute, eta irakasleak ere pertsonak dira, nahiz eta harremanetan profesionalak izan. Horregatik, Salegik beharrezkotzat jotzen du irakaslearen bizitzako mugari eta bizipen esanguratsu horietan arreta jartzea, horiek aztertzea eta beharrezko lanketa egitea. Eta beste horrenbeste prestakuntzari dagokionean ere, formazioaren nolakotasunak begirada sentikorra eraikitzerakoan eragina izan dezakeela ondorioztatu baitu.

Zazpi irakasle, zazpi begirada

Salegik zazpi irakasle eta zazpi begirada aztertu ditu tesia osatzeko, ez baitaude begiratzeko modu bera duten bi lagun. Haiei den-dena kon-tatzeko eskatu die, bizitzako gorabehera guztiak, nola pertsonalak hala profesionalak, horiek denek beren begiradan izan duten eragina neurtzeko. Zazpi lagun horiek gabe tesirik ezingo zukeela ondu aitortu du egileak, haien esperientzietan oinarrituta gauzatu duelako lana. Horiek aztertuta ikusi du badirela begiradaren eraikuntzan dezenteko eragina duten eta jakiteko interesgarriak diren beste kontu batzuk ere.

Esate baterako, ez dagoela sentikortasunik ez duen pertsonarik, denek daukatela, batzuek gehiago eta besteek gutxiago. Begirada sentikorra zerbait aldakorra dela, eta uneoro garatzen doala. "Begirada zerbait dinamikoa, konplexua, multidimentsionala eta aldakorra da; testuinguruarekin elkarrekintzan eraikitzen dena eta pertsonaren esfera guztiei eragiten diena. Horrek isla dauka gelako giroan, haurrarekiko jokabidean eta ebaluazioan". Tesiaren izenak

ondo dioen moduan, begirada sentikorra hori eraiki egin daitekeela. "Gaur egun garena, orain arte bizi izan dugun guztiaren ondorio da: gure bizitzatik pasatu diren pertsonena, gure balio, pentsamendu eta emozioena; azken finean gure esperientzien ondorioa, positiboak edo negatiboak izan. Pasarte esanguratsuenak izango dira gure begiradan gehien eragingo dutenak, inflexio puntutzat har daitezkeen mugarri horiek. Sarritan ez dira izaten esperientzia gozoak, sufrimendua eragiten dute, eta askotan gorputzarekin eta bizipenekin oso lotuta egoten dira". Irakaslearen atxikimendu eredua ere begirada sentikorraren eraikuntzan erabakiorra dela esan du, baina ez da behin betikoa, alegia, begirada sentikorra landu eta garatu daitezkeen bezala, atxikimendu ereduak ere landu eta tratatu daitezkeela. "Bizitzan zehar eredu horiek egonkor mantentzen badira ere, aldaketak izan dizakete esperientzia berrien eta beste irudi esanguratsu batzuekin izandako kalitatezko harremanen ondorioz".

Irakaslearen begirada sentikorra zer den, zer ezaugarri dituen, garrantzitsua zergatik den, nola eraikitzen den, zerk eragiten dion eta beste hamaika kontu ikertuta eta luze eta zabal azalduta, hori guztia praktikan jartzeko garaia da orain, bihar Haur Hezkuntzako irakasle izango diren horien begiradak trebatzekoa, eta zergatik ez, baita dagoeneko irakasle diren horienak ere. Honetan ere, ziur asko, denbora izango da epailarik onena, baina jakina da biharko aldaketak gaur hasi behar direla lantzen.

Orioko Mandalara Kultur Elkarteko lagun eta kide ohiak.

Gaizki-ulertuak sortu aurretik, iritsi zaizkigun zurrumurruak direla eta, Mandalara Kultur Elkarateak jakinarazi nahi dizue elkarteak **EZ DELA DESEGIN**, azken aldi honetan ekitaldirik antolatu ez arren, elkarteak osatzen dugun kideok hauekin bat egin nahi dutenei esperientziak aurkezteko gogoz eta ilusioz jarraitzen dugula.

Horretarako, **azaroaren 9an**, asteartea, **19:00etan**, **Orioko Kultur Etxean** egingo dugun bilerara gonbidatzen zaituztegu.

Agurrak,

MANDALARA KULTUR ELKARTEA

"8 urtera arte, izugarrizko tresna da psikomotrizitatea"

MARI JOSE GARATE ETA AINHOA ZUMETA ORIOKO HERRI IKASTOLAKO ETA ZARAGUETA IKASTETXEKO IRAKASLEAK

Haur Hezkuntza etapa ondo ezagutzen dute Ainhoa Zumetak (Orio, 1979) eta Mari Jose Garatek (Orio, 1963), bai teoriari dagokionez, bai eguneroko praktikari dagokionez. Izan ere, hamar urteko ibilbidea du Zumetak haur hezkuntzan, eta gaur egun Zaragueta ikastetxeko zuzendaria da. 1984tik Orioko Herri Ikastolan Haur Hezkuntzako hezitzailea da, berriz, Garate, eta Konfiantzaren Pedagogia izeneko alorraren dinamizatzailea da.

Azken urteetan aldatu egin da umea ikusteko edo berarekin lan egiteko modua. Nola gogoratzen dituzue lehengo garaiak?

Mari Jose Garate: Umea ume ikusten genuen, baina garai hartako pentsamendua zen irakaslea zela irakasten zuena. Espazioak ere mahaiz beteta edukitzen genituen, eta gehiago lantzen zen alderdi kognitiboa. Ez genituen kontuan umearen erritmoak, aniztasuna...

Goxotasuna hor zegoen, baina oso desberdina zen garai hartako planteamendua, beste begirada bat zen; asko aldatu da. Beharbada Ainhoa ez du horrenbesteko alde ikusi.

Ainhoa Zumeta: Gaur egun sinesten dugu umeak bere gaitasunak dituela eta horiek garatzen lagunduko diogunak garela gu; hor dago aldaketa, begiradan. Hala ere, nik uste dut aldaketa horretan hasi bakarrik egin garela. Ikasketa



askoren, hausnarketa askoren ondoren ari gara bide hori egiten, baina urteak beharko dira.

M.J.G.: Argi dugu umea dela hezkuntza prozesu honetan subjektu aktiboa. Gu, berriz, egunero ari gara behatzen, bidelagun gisa, eta erronkak jartzen. Bestalde, geure jarduna ere beti begiratu behar da; ondo egin dugu? Ez? Zer zuzendu behar da?

Materialarekin, berdin. Beti ari gara guztia behatzen eta hausnartzen horren inguruan, hobetzeko eta aurrera egiteko.

Horrekin lotuta, Eider Salegik egin duen tesian Haur Hezkuntzako hezitzaileak *begirada sentikorra* izatearen garrantzia azpimarratu du; berak hala deitu dio.

A.Z.: Umearen bidelagun garela esaten dugunean, errespetuzko begiradari buruz ari garela uste dut. Saiatzen

gara ulertzen ume horiek uneoro nola dauden, askotan ez direlako gai hitzez esateko, baina gorputzarekin esaten dutelako. Eta sentikortasuna hortik ere badago: hausnarketa eta behaketa, eta noski, geure buruen azterketa ere egin behar dugu, ez besteena bakarrik.

M.J.G.: Haurra gaitasunez betetako pertsona bat da, baina gaitasun horiek garatzeko, konfiantza izan behar du bere buruarengan, eta horretarako beharrezkoa da guregan izatea, eta baita ingurunearengan ere. Begiradan garrantzia jartzen dugu, lortu behar dugulako haur horrek gurekin lotura afektibo bat egitea: konfiantzazko begirada bat, maitatua den begirada, esaten diona *ulertzen zaitut, zugar sinesten dut*, begirada bat begietara begiratzen duen hori baino harago doana. Haurrak ikusi behar du begirada horretan guk beragan sinesten

dugula eta bere gaitasunetan. Gu, azken batean, bere ispilu gara. Seguru sentitzen bada, esploratzen hasiko da. A.Z.: Presentzia ere oso garrantzitsua da: heldua dagoenean haurrarekin, egon egin behar du. Zeren, askotan, helduok hor gaude, baina burua beste zer baitetan edukitzen dugu. Umeak sentitu behar du zu berarekin zaudela. M.J.G.: Eta begirada horretan ere oso garrantzitsua da, nire ustez, familiarekin harremana. Familiaren eta gure artean konfiantza baldin badago, hori transmititu egiten zaio umeari ere. Denok ekipo bat gara hauraren garapen integralaren bide horretan. Aipatu duzue haurrak ez direla gauza guztiak hitzez azaltzeko gai, baina gorputzak, mugimenduaren bidez, asko esaten duela. Psikomotritizitateak garrantzia handiagoa du azken urteetan hezkuntzan, ezta? M.J.G.: Uste dut horretara garai batean baino askoz bitarteko gehiago jartzen ditugula; azken batean, garapen integralaz ari garenean, ari gara garapen kognitiboaz, garapen emozionalaz, eta motorraz. Haurrak bere baitan dakarki mugimendua; haurrentzat mugimendua da guretzat hizkuntza dena, bera mugimenduarekin komunikatzen da, Ainhoak esan duen bezala. Mugimenduarekin adieraziko dizkigu emozioak, beharrak, nahiak, zailtasunak... Eta saiatzen gara eskaintzen haurrari espazioak, estruktura tridimentsionala, materiala... bera lasaitasunez eta askatasunez mugitzeko.	A.Z.: Niretzat psikomotritizitateak garrantzia handia du, eta ematen zaion inportantzia baino handiagoa eduki beharko luke. Zergatik? Bada, heldu batek, zailtasunak dituenean, psikologoarengana joaten delako eta han askatzen duelako barruko korapiloa. Haurrak ez dira gai horretarako, eta psikomotritizitateak, mugimenduaren bitartez, sinbolismoaren bitartez, ume horrek adieraztea lortzen du, edo guk ulertzea edo interpretatzea zer gertatzen ari zaion. Horregatik, 8 urtera arte izugarritzko tresna da psikomotritizitatea. Haur Hezkuntzan oso-oso garrantzitsua da terapeutek egiten duten lana zailtasun handi bat dagoenean. Bestalde, ikastetxeetan psikomotritizitate gelak daude, hor eskaintzen zaie mugimendurako aukera umei, eta bitartean, irakasleak begira egoten gara, eta hor ikusten ditugu gelan ikusten ez diren gauza asko. Arau batzuk jartzeko aukera ematen dizu, muga batzuk, garapen prozesuan non dauden ikusten da... gauza askotarako bidea ematen du. Zuen ustez, zein da Haur Hezkuntzaren helburua gaur egun, 2021.urtean, edo zerk izan behar luke? "BEGIDARAN DAGO ALDAKETA; GAUR EGUN, SINESTEN DUGU UMEAK BERE GAITASUNAK DITUELA" "KONFIANTZA GIROAN HEZTEN DEN UMEA GAI IZANGO DA BIZITZAN ZEHAR ETORTZEN ZAIZKION ARAZOEI AURRE EGITEKO"	A.Z.: Haurrek 6-7 urterekin ematen dute abstrakzioarako bidea, eta bitarte horretan, pertsona bakoitzaren oinarri sendoak garatzen dira, edo garatu behar lukete. Batez ere, 0-3 adin tartea da oso garrantzitsua, ni-aren eraikuntzan daudelako. Gero, 3-6 tartean sozializatzeko garaia izaten da, sinbolismoarena. Uste dut garrantzitsua dela hori guztia ondo eginda pasatzea hurrengo etapara. Umeak oreka izatea eta barruko lasaitasuna izatea da inportantea, umea lasai badago, bizitza osoan zehar egongo delako lasai. Hausturak eta hutsuneak ume-umetan egoten dira, eta horiek nolabait lehenbailehen detektatzea da garrantzitsua. Hiruki bat osatzen da hor: umea, irakaslea eta familia. Oreka hori ahalik ondoen aurkitu behar da. M.J.G.: Konfiantza giroan hezten den umea edo gaztea, gero gai izango da bere bizitzan zehar etortzen zaizkion egoerei eta arazoei aurre egiteko. Haur Hezkuntza lorategi bat bezalakoa da zentzu horretan: guk erein egiten dugu lurra, ura botatzen dugu, ongarria... eta, askotan, benetan loratzeko momentua ez dugu ikusten; gerora, urrutira ikusten da. Euskararen garrantzia ere txikitatik erein beharko da... A.Z.: Euskararen oinarri sendo bat emanda egiten dugu lan, eskolak garrantzia handia ematen dio horri. Beti eduki du, eta beti edukiko du. M.J.G.: Hori da. Ikusten dugu, gainera, azterketak eta egiten direnean euskararen erabileraren inguruan, beharra badagoela. A.Z.: Uste dut ikastetxeak bakarrik ari garela euskararen
---	---	--

transmisioa egiten, etxetik aparte, noski. Baina gizarte osoak egiten ez badu zerbaite, hemen alferrik ari gara.

M.J.G.: Zuzenean aurrena familiekin egin behar da lan, gero herriko beste eragileekin, eta azkenik, goiko mailetara joan behar dugu. Baina gurasoekin lan handia egin beharra dago, askok etxetik ekartzen dutelako euskara, baina beste askok ez. Eta hausnarketa egin behar dugula uste dut...

A.Z.: ...euskara modu ludikoan lantzeaz...

M.J.G.: ...bai, eta baita erabilerari dagokionez ere, zeren euskaraz dakigunok, euskaraz egin behar dugu. Eta gurasoek euskaraz baldin badakite, euskaraz egin behar dute.

Haur Hezkuntza umea ikusteko moduan egon diren aldaketak aipatu dituzue, baita konfiantzaren garrantzia, psikomotritzitateak hartu duen indarra, etab. Hezkuntza hartu den bidea sintonian al dago familien eta gizartearen ikuspegiarekin?

A.Z.: Nik uste dut ikastetxe aukeraketa bat dagoenean, proiektu pedagogiko horrekiko hautua egin dutela gurasoek. Gero, askotan, guri tokatzen zaigu konpentsatzea gizarteak ikusten ez dituen kontu batzuk, guk, gure ikasketengatik edo gure hausnarketengatik ikusten ditugunak. Familiekin, bileretan eta hitz egiten dugu beharrak non ikusten ditugun azaltzeko. Askotan alde negatiboa azpimarratzen diegu, eta uste dut alderantziz egin behar dela;

zoriondu egin behar dira gurasoak, ondo ari diren eremuetan. Izan ere, familiekin gauzak oso ondo egiten dituzte. Umeak gurekin ordu batzuk egoten dira, baina familiekin hazten dituzue, ez guk. Bestetik, gu ere gizarte gara, eta etxe bakoitza mundu bat da, errealtate bat da, eta uztarketa hori egitea da gure lana.

M.J.G.: Bestetik, nik uste dut familiak ere gero eta gehiago ohartzen direla Haur Hezkuntzaren garrantziaz. Umeek jolastu egiten dutela? Bai, noski, jolastu egin behar dutelako, baina Piagetek esaten zuen: haurra ez da jolasten ikasteko, baina ikasten du jolasten delako. Zentzu horretan, gurasoak Haur Hezkuntzaz beste ikuspegi bat izaten ari direla uste dut, eta Ainhoak esan duen bezala, ikastetxe bat aukeratzean, gauza askotan ados egongo dira. Baina era askotako familiak daude, eta errespetatu egin behar dira.

Bidelagunak izateko, hezitzaileak beharrezkoa du lanketa pertsonala egitea.

A.Z.: Bai, guk ikusteko besteari zer gertatzen zaion, zer ez, filtroa gugandik ere pasa beharra dago, eta uste dut,

"ERA ASKOTAKO FAMILIAK DAUDE, ETA ERRESPETATU EGIN BEHAR DIRA"

"FAMILIA ONARTUA SENTITZEN DENEAN LASAITU ETA IREKI EGITEN DA. EDERRA DA HORI"

orokorrean, hezkuntzak badaukala hor zer landu asko.

M.J.G.: Arrazoi osoa duzu, oso erraza egiten zaigu bestearena ikustea, baina aurrena guk gurea begiratu behar dugu.

A.Z.: Bestela, gure zailtasuna besteengan proiektatzen ari gara. Eta jakin behar dugu zer den nirea, zer den bestearena, eta bestearena lagundu, ez nirea konpontzen ibili. Hori auto-lanketa handia da.

M.J.G.: Eta norberak egiten badu bere barrualderako bide hori eta hausnarketa hori, prestatuago egongo da gero besteari laguntzeko, haurren bidelagun izateko.

A.Z.: Errespetuzko bidelaguna izateko gakoa hor dago, nire ustez.

Gurasoak errespetatzea aipatu du lehen Mari Josek.

A.Z.: Umea errespetatzeko eta onartzeko, gurasoak errespetatu eta onartu behar direla uste dut, eta hori ere askotan zaila da, gauzak ez ditugulako berdin ikusten. Baina familia horrela baldin bada, guk egin behar duguna da hortik lagundu. Agian lehen joera zen aldatzea edo gureganatzea, baina ez, beraiek errespetatu behar ditugu, eta errespetu hori sortzen denean, dena ondo joaten da.

M.J.G.: Nik umea ulertzen badut den moduan, familia ere ulertuko dut, eta beraiek ere ni ulertu behar naute naizen moduan, inor ez delako perfektua.

A.Z.: Familia onartua sentitzen denean lasaitu egiten da, eta ireki egiten da. Ederra da hori.

M.J.G.: Horixe da konfiantzazko harremana sortzea.

"Haur eskolak doakoak izatea eta hezkuntzan integratzea eskatzen dugu"

ELIXABETE URIA ORIOKO HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEA

Elixabete Uria Manterola (Aia, 1983) Orioko Haurreskolako hezitzailea da duela hamabi urtetik. Goxotasunez eta samurtasunez hartzen ditu haurrak, eta Haur Hezkuntzaz duen ikuspegia partekatu du elkarrizketan.

Haur Hezkuntza etapan -0-6 urte- ezartzen dira umearen oinarri sendoenak, baina 0-3 da garai inportanteena adituen esanetan. Zein da haur eskolen egitekoa, zehazki?

Haurren erreferentziazko pertsonak ume horiek haur eskolara ekartzen dituztenean, beraien zaintza eta heziketa egokia bermatzeaz arduratzen gara hezitzaileok.

Pikler metodoa darabilzue Orioko Haurreskolan.

Hala da. Emmi Pikler Budapesteko [Hungaria] Loczy umezurtegiako pediatra eta zuzendaria izan zen. Ia 2.000 haur behatu eta aztertu zituen. Ondorioztatu zuen haurraren garapena berez ematen dela, modu autonomoan aritzeko aukera ematen bazaio. Piklerrentzat, haurrentzat hoberena da berezko ahalmen hori errespetatzea, bakoitzari bere bidea egiten utzita. Haur eskolan, banakako zaintza momentuak zaindu eta ingurua egokitu, haurrari aukera ematen diogu bere nahi eta erritmoen arabera mugimenduaren garapena egiteko: lurtean buruz gora etzanda egotetik oinez hasi eta trebezia berriak lortu arte.



Horretarako, beharrezkoa izango da haurraren beharrak asetuta izatea eta erreferentziazko helduaren begirada eta babesa. Zentzu horretan, etengabe egokitzen ditugu haur eskolako espazioak eta materialak.

Umeari arreta egokia emateko, garrantzitsua da hezitzaileak bere buruari arreta eskaintzea ere, ezta?

Bai. Etengabeko formakuntzaz gain, hezitzaileon arteko komunikazioa eta lankidetzak bultzatzen saiatzen gara. Gure lantaldea finkoa da: zortzi hezitzaile finko gara eta elkar ezagutzeaz gain, funtzionamendu bateratua eta sendoa izaten laguntzen digu. Maiztasunez egiten dira hezitzaileen arteko klasutxoak haurren eta hezitzaileon arteko zuzeneko behaketa eginez.

Zer gabezia eta erronka ditu gaur egun haur eskolak?

Haur eskola gizartearekin batera aldatzen eta hobetzen joaten nahiko genuke. Horretarako, beharrezkoa da poliki-poliki gure espazioak hobetzen joatea. Gaur egun, eta COVID-19ak eragindako ondorioengatik, badakigu zer onura eskaintzen dituen kanpo espazioak, haurrak aire librean

egoteak, eta gure helburua kanpo espazioen balioa handitzea izango da. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu Haur Hezkuntzaren balioa indartzea ere. Umearen lehenbiziko 3 urteetako garapenak ikaragarriko garrantzia izango du bere etorkizunean, eta beraz, HHko lehen zikloa indartzeko eta baloratzeko beharra ikusten da. Eskatzen duguna da haur eskolak doakoak izatea eta hezkuntzan integratzea.

Zuretzat zer da zure lanaren gauza politena?

Haurrak haur eskolara egokitzen direnean eta haur eskolaz disfrutatzen ikusten ditugunean. Haurrengan aldaketak bizitzen ditugunean. Ziklo hau intentsitate handikoa da, eta aldaketa asko bizitzen ditugu beraien bidelagun izanez. Oso polita eta aberasgarria da garai hau.

Bereziki inportantea edo harro sentiarazi zaituen unerik bizi izan duzu?

Familia eta hezitzaileon arteko konexio-zubi polita eraikitzen denean eta tartean dagoen haurra asetuta eta lasai ikusteko aukera dugun bakoitzean. Familiak haur eskolako ibilbidea bukatzeaz dagoenean adierazten duten esker ona jasotzean....

Zure ametsetako eredutik gertu al gaude?

Nire nahia haur guztiek erreferentziazko helduen begirada eta kalitatezko presentzia baten eskutik hazteko aukera izatea da; eskolan, kalean eta etxean heldua gertu sentituz, seguru eta goxo haz daitezen gure haurrak. ■■■■

EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA
GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK



ZARAGUETA HERRI ESKOLA

"Gure lekuan egon direnei eskerrak eman nahi dizkiegu"

AINHOA ZUMETA ZARAGUETA HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA

Zein izan da zure ibilbidea irakaskuntzan?

Ingelesko irakasle izateko ikasketak egin nituen Donostiako irakasle eskolan. Gero, hamar urtez aritu nintzen lan horretan, Arabako, Bizkaia, Gipuzkoako eta, batez ere, Nafarroako hainbat eskola eta institututan. Haur Hezkuntzako ikasketak egiteko gogoia izan nuen beti, eta hamar urte beranduago, berriz ere Donostiako irakasle eskolara itzuli nintzen. Nafarroan oposaketak gainditu, eta Gipuzkoara etortzeko aukera izan nuenean, Orioko Zaragueta eskolan lan egiteko eskaera egin nuen, eta Haur Hezkuntzako irakasle izateko postua eman zidaten. Orduz gero hementxe ari naiz, nire herrian, lanean.

Orain arte egin duzun bidean zer azpimarratuko zenuke?

Hasierako urteetan ikastetxe asko ezagutzeko aukera izan nuen, eta hori oso esperientzia aberasgarria izan zen. Lan egiteko modu ezberdinak eta Euskal Herriaren errealitate ezberdinak ezagutu nituen. Bidean pertsona zoragarriak ezagutzeko aukera izan dut (lan-kide, ikasle, familiak...). Azken hamar urteak Orion daramatzat, Haur Hezkuntzako irakasle. Oso urte politak izan dira: ederra da 2 urterekin hasten diren haurtxoak nola hazten diren ikusteko aukera edukitzea.



Urteotan irakaskuntza arloan eman dako zer aldaketa aipatuko zenituzke?

Irakasle izatetik hezitzaile izatera pasatu gara. Ikasleen bidelagunak izateko profesionalok begirada aldaketa egiten ari gara. Ikaslea da bere ikasketaren protagonista, ez heldua. Begirada aldaketa hori egitea ez da erraza, poliki-poliki egiten da, nork bere buruari asko erreparatuz, egiten duena zertarako egiten duen etengabe galdetuz...

Zer helburu dituzu hasiberri duzun lau urteko zuzendari aldirako?

Zuzendaritza talde berria lanerako gogoz eta ilusioz gatoz. Orain arte gure lekuan egon direnei eskerrak eman nahi dizkiegu, haien guztien lanari esker gaudelako gauden lekuan.

Orain arte bezala, helburua da Zaraguetan hezitako haurrak Orion, euskaratik, gure kulturaren ondo sustraitutako pertsonak izatea. Horretarako, Orioko Curriculumaren lanketan jarraitu nahi dugu. 16 urterekin Oriotik kanpora ikasketak egiten jarraitzeko beren osotasunean prestatuta irtengo diren pertsonak hezi nahi ditugu. ■■■



INHAR URANGA ETA
IMANOL HERNANDEZ

INTERNET, EUSKARAREN MEHATXUA?

Gaur egun Interneteko erabiltzaileen artean euskal hitzun asko dago, baina, gehienek, beste hitzkuntza batzuetara jotzen dute informazio zehatz bat bilatu nahi dutenean, eta horrela, euskararen erabilera gutxitu egiten da. Horregatik, euskara ez da lehenesten edo alboratu egiten da hitzun euskaldunen artean. Arazo horren inguruan hausnarketa baten premia ikusten dugu. Ez al da horrela?

Nahiz eta Wikipedian 34. tokian egon artikulu gehien publikatuta dituzten hizkuntzen zerrendari dagokionez, beste hizkuntzek erabiltzaile gehiago dituzte, beraien gaiak osatuagoak daudelako eta informazio hobeak dituztelako, eta baita beste hizkuntzak ezagunagoak direlako ere.

Lehen, pertsona gutxiagok hitz egiten zuten euskaraz. Orain, euskara zabaldu egin da Euskal Herrian zehar, eta jende gehiagok hitz egiten du, eta hori guztia sare sozialen bultzadarekin eta laguntzarekin gertatu da.

Aurreko guztia laburbilduz, Internetek eta sare sozialek euskarari hazten eta zabaltzen lagundu dieten arren, erabilera oraindik erronk da. ■■■

Hildakoentzako hitz biziak: Ez adiorik!



IÑAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Azaroaren 1ean hildakoen eguna ospatzen dugu gure kulturan, eta horrek gure hildakoak gogoan izateko egokiera eskaintzen digu. Herritar asko kanposantura joaten da egun horretan haiei bisita egitera. Askorentzat huraxe izaten da urte osoan hilerrira joaten diren aldi bakarra. Hilobian loreak jarri, eta, apaizarekin batera otoitz eginez, hildako senide maitearekiko oroitzapenak hausnartu: horixe izaten da herritar askorentzat urtean behin hildakoa oroitzeko modua.

Orion, garai batean, elizaren barrualdean lurperatzen zuten hildakoa, gero zimitorioan (*cementerio* hitzetik eratorritako hitza), geroago kanposantua eraiki zuten orain musika eskola dagoen inguruan. Eta gero, handik oraingo hilerrira pasatu zen hildako herritarrentzako bizilekua. Toki ederra eman zitzaion oraingo hilerriari, 1896an eraiki zutenean: herriaren gainean, Aia aurrez aurre, errioak,

itsasoak eta mendi ederrek inguratuta.

Orain arte, hildakoak hilerrian lurperatu izan ditugu. Gaur egun, badira bestelako aukerak ere. Familia askok erraustu egiten du hildakoaren gorpua, eta haren errautsak mendi edo itsaso inguruko gune kutunean zabaldu. Kasu guztietan, hitza erabiltzen dugu joan denari agur esateko. Kanposantu batzuek atarian bertan dute heriotzaren aipamena idatzita: *Gaur ni, bihar zu, Zu orain zarena izan nintzen ni, ni naizena izango zara zu*. Ere mu intimoan, beti egin da, eta egingo, heriotzaren orduan hitza egoki erabiltzeko ahalegina, oinazea arintzeko, dolumina adierazteko, hildakoa oroitzeko...

Anjel Lertxundik gogoeta interesgarria egin zuen *Berria* egunkarian (2020-10-04):

**EREMU INTIMOA
GAINDITU ETA PLAZARA
ATERATZEN DIRA
HILDAKOEI JARRITAKO
BERTSO BATZUK**

"Oroimenak dirauen bitartean, hildakoak ezagunen memorian utzitako oihartzuna gelditzen da. Fortunaz, gizakiok ez gara natura hilkor soila, historia eta etorkizuna ere bagara. Katebegi. Izan zirelako gara eta garelako izango dira. Ausentzia fisikoa presentzia espirituala bihurtzen da hitzaren bidez, ez adio sentituaren bitartez".

Euskaraz idatzitako hitzen artean, gogoangarriak dira Xabier Amurizaren kantuenak:
*Mundua ez da beti jai,
inoiz tristea ere bai,
baina badira mila motibo
kantatzeko alai,
bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi,
ni hiltzen naizen gauean
behintzat,
eizue lo lasai.*

Mikel Laboak musikatu zituen Joxanton Artze usurbildarraren hitzak ere ederrak dira; bizitzaren aldeko kantu bihurtu zuten heriotzaren kontrako borroka: *Nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin
ez dut haatik horren aurka
buru-bihotzez borrokatzetik
etsiko.*



Orioko hilerriaren irudia. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

*ez nau ustekabeen
harrapatuko.
Bizi naizeno bizitza kantatuko
dut.
eta behar dudan denbora baino
lehen hiltzen banaute
nere hortzetan itzaliko den
azken antzia
beste batenetan loratuko den
lehen irria izango da.*

Oriotarrentzako kantu eta bertsoak

Hildakoa gogoan, hainbat
olerki, bertso eta kantu sortu
dira herrian. Haietako batzuek
eremu intimoa gaingitu eta
plazara ere atera dira. Ba ote
dago, ba, hizkuntza baino leku
egokiagorik maite izan dugun
norbait lurperatzeko? Anjel

Lertxundik liburu oso bat
eskaini zion bere emazteari,
gaitzak jota egoera larrian
zegoela: Zu. 2002ko irailean
estropada-bertsoen jaialdia
antolatu genuen bertsozale
oriotarrok Donostiako Euskal
Jaietan; saioan omenaldia egin
genion Julen Saizar oriotar
gazte zendu berriari.

Barra muturrean bertso bat
dago plaka batean, inguru
hartan itotako arrantzale eta
arraunlariak gogora ekartzeko
jarria. Bertsoa Fabian Loidi
apaizarena da, 1952an Virgen
Carmeli baporeak han
izandako istripuan itotako bost
arrantzaleei jarria:
*Oriotarren kezka
minena da barra*

*itsasorako duten
ur-bide bakarra
ogi bila joateko
igaro beharra
heriotza dutela
zelatari zaharra.*

Hendaia plazako 22. etxearen
atarian, oroitarri batek Juan
Zaragueta 1888an han jaio zela
oroitarazten digu. Orioko herri
ikastetxeak apaiz filosofo
oriotar haren izena dauka.
Eskolan Zaragueta berriz bustoa
dago, honako bertsoarekin:
*Filosofian jakinduria
ez zenuen ez urria
Juan Zaragueta zure bizitza
izan da urrezko orria
apala eta samurra zinen
ta ezpainetan irria
zure Orion harro dauzkazu*

*eskola eta herria
hargatik jarri dugu betiko
zu oroitzeko harria.*

Manuel Lasartek alabari

Manuelek 12 bertsoko sorta osoa jarri zion 1958an 17 hilabeterekin hil zitzaion Pili alabatxoari. Haurrak, jostatzen zebilela, babarrun ale bat tragatu, eta kontrako eztarritik joan zitzaion...

*Baba-ale gordin bat zuen
tragatua,
kontrako eztarrira joan da
trabatua.
ito bear da ezin ura da tratua!
bere deskuidua zun ondo
pagatua!*

*Aita baten biotzak zer sufritzen
duan
bere aur txiki baten eriotz-
orduan!
galdetzen nion: Nora nai
zenduke joan?
biatzarekin gora erakusten zuan!*

Igor Manterola, Bull

Igor mutil gaztea Bartzelonako olinpiadetan zebilen, 1992ko udan, boluntario lanetan. Istripuz hil zen han bertan. Lagunek bertsoak jarri zizkioten:

*Ezin lehortuz gabiltz begiko
malkoa eta negarra,
ezin aldenduz gabiltz bihotzak
jaso zuen zoritxarra,
lehen gure lagun zinaden Igor
ta orain gure izarra,
zure dizdirak emango digu
guri bizitzeko indarra.*

Asier Gaztañazpi, Kanpa

Asier 23 urteko arraunlari gaztea auto istripuz hil zen 1995eko urtarrilaren 23an. Haren ezizena eman zion Arraun Elkartek traineru horiari: *Kanpa*. Haren iloba Iratz Urkizuk kantu bat eman du argitara disko batean, bere aita Imanolen hitzekin osatua: *Itsasoak harkaitzarekin izaten duen borrokan bizitzarekin gu ere lehian bata besteari mokoka. Hegan joan zaigun gure txoria itzaltzen da egunero lore artean agertzen zaigu eguna argitu ezkeror. Ur gainean aurkitzen zaitut baita ere lehorrean ontzia zu zaitugu eta zurekin gu arraunean.*

Txikiri Euxebio Lasartek

Juan Mari Larrañaga, Txiki Orioko traineruaren patroiz arauztarra 1998ko urriaren 24an hil zen auto istripuz. Benitok *Nere* ekialdean kantua eskaini zion Txikiri, hark Orion utzitako hutsunea gogoan: *Urdina itsasoari irailak eman zion eta itsasoak nerekin kaio egin zuen, itsaso den kaioa.*

Euxebio Lasartek bertso hau jarri zion:

Juerga garaian zan mundiala lanean berdin sormen zabala arraunen berriz txori jakintsu leiala ta zerbitzala patroiz onena zinala askok aitortua hala egundoko historiala gorputz lerdena ta argitasuna

*eten gabeko eginahala
sinesten degu oriotarrontzat
altxorra izan zerala.*



Benitok taldekideari

Lertxundiren taldeko pianojole Martin Irizar beasaindarra bizikletan zihoala hil zen (1990-07-15), auto batek harrapatuta. Benitok *Udazken koloretan* kantu ezaguna sortu zuen haren oroimenez. *Udazken koloretan, landen lurrinak zeharkatuz, hitaz oroit eta higan nauk. Zuhaitz biluziaren gerizpean orpondoa, orbelaren hilobi, horiz eta gorritz dena lokarturik. Eskuratu hostoa xume bezain eder, hain soila bere heriotzean, zuhaitz guztiaren bizkortasunez hain betea, non erortze honen duintasunak hiri kantatzera naraman. Berriro zuhaitzari so natzaiok, kezkatu ote?...*



Oihana Alkorta. UTZITAKOIA

joate askearen oparotasunean,
betikotasunaren irria zirudik.
irria zirudik.

...Hain soil hire heriotzean,
hain xume, adiorik gabeko
partitzean.

Oihana Alkorta

2007ko maiatzaren 17an zendu zen Oihana Alkorta abeslaria, 29 urterekin, auto istripuz. 2004ko Kilometroen festarako diskoan Oihanak *Airean idazten dizkizut* abestia plazaratu zuen. Kantua aitari egin zion, 1978ko irailaren 9an itsasoan galdu zen Jesus Mari Alkorta arrantzale getariarrari: *Itsasoko olatuen gainean nabigatzen dihardu harkaitz honetan hotz dago urrunean argi gorridun itsasontziak agur esaten dit eta hemen nago ni*

kaixo esaten
zerura begira
airean idazten
hotz dago.

Oihanak 2005ean olerki bat helarazi zion bere adiskide Alex Tello usurbildarrari, paper mutur batean idatzita. Hauxe zioen poemak: *Zuhaitz hostoen atzean ezkututzen den ilargiak zuregana narama, haizearen uluaz zure oihuak heltzen dira, ta galtzen naiz, mintzen nau...*

Oihana hil zenean, Tellok hitz horiei jarraipena emateko konpromisoa hartu zuen. Esan eta egin. 13 kantu bildu zituen *Galerak*. Oihana Alkortaren poema baten segida lanean, tartean *Airean idazten dizkizut*.

Aitor Sarasua

2018ko azaroaren 14an hil zen Aitor Sarasua bertsolaria Lapurdiko Itsasu herrian.

Heriotzaren aurreneko urteurrenean, gogoan izan zuten senideek, eta musikaren bidez omendu. Oier anaiak doinua jarri zien Aitorrek berak adiskide min bat galdu zuenean idatzitako hitzei: *Ilun beltzean, eta abesti ederra sortu: Nork erran du ilun beltzean, bizi hau itzaltzen denean, dena hortan bukatzen dela? Oroimenean, bihotzaren magalean, joan zirenak badiraute, airean, usainak bezala. Etsiturik nagoenean, hutsik sentitzen naizenean, badakit hemen dagoela ibiltaria, joanik ere hemen dabil-eta makila.*

Nik badakit gau ilunean, bizi hau itzaltzen denean, izar berri bat pizten dela. ■■■



A-25 Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna

Azaroak 25ean indarkeria matxistaren aurkako eguna da, aspalditik jendartearen dugun pandemia horren aurkako eguna, hain zuzen ere. 2021ean Euskal Herrian bost emakume erail dituzte matxistek eta eurak gogoratzeko tartea hartuko dugu. Baita ere beraien hiltzaileak irmoki salatzeke, autodefentsa feminista aldarrikatzeko eta sistema kapitalista/arrazista/patriarkala erraialetatik iraultzeko dugun beharra gero eta argiago dagoela gogorarazteko.

Eraildako emakumeak bakarrik zenbatzen ditugu,

baina askotariko indarkeria matxista jasaten dugu emakumeok egunerokotasuean, eta gogorarazi behar dugu izebergaren azpian dauden indarkeria kasu horiez guztiez ari garenean ere indarkeria matxistaz ari garela.

Guztiok dakigu COVID-19aren eraginez sortu den

**ETOR ZAITEZTE
AZAROAREN 25EAN
EGINGO DUGUN
MANIFESTAZIO
ZARATATSURA**

egoerak nola aldatu duen gure harremantzeko modua. Kolektibitatea erabat ahultzea ekarri du pandemia honek eta herri mugimenduak oso kaltetuta daude. Feminismoak emakumeon batura eta elkar babesa aldarrikatzen du, eta orain da ordua ahulezi horiei guztiei erantzun kolektiboa emateko.

Orion ere indarkeria matxista kasuak egunerokoan bizitzen ditugula aipatu behar dugu, askotan beste herrialdeetan gertatzen den fenomeno bezala identifikatzen baita, eta hori ez da horrela. Gure herria ere

HAUXE BAI JENEROA!





matxista dela argi utzi nahi dugu.

Xaltxerak talde feministatik eskerrak eman nahi ditugu indarkeria egoera bortitza jasaten ari den herritar bati laguntzeko herriak egindako ahaleginagatik. Azaroak 25eko kanpainan banatuko ditugu eskatu dituzuen kamisetak. Aurretik eskaera egitea pasa

bazaizue, egingo ditugun banaketa egunetan aurrez aurre erosteko aukera izango duzue.

Azaroaren 25ean, azken urteetan bezala, manifestazio zaratatsua egingo dugula aurreratzen dizuegu. Etor zaitezte zarata ateratzeratzeko prest, badugu eta zer aldarrikatu. ■■■

NIRE HONETAN



IÑIGO EXPOSITO

Erabaki askeak

Bai eta ez. Ez eta bai. Bi hitz. Sipleak. Zehatzak. Hizki

gutxikoak. Ahoskera errazekoak. Ulerterrazak. Interpretaziorako biderik ematen ez dutenak.

Bai eta ez. Ez eta bai. Buruhaustea. Beldurra. Izua. Segurtasun falta. Ausardia. Adorea. Lasaitasuna. Kemena. Erabakimena.

Bizitzan etengabe hartu behar dira erabakiak. Egunero. Orduro. Minuturo. Segunduro. Esnatzen garenetik lotara sartzen garen arte.

Bai eta ez. Ez eta bai. Bi hitz horiek ematen digute erabakitzeke ahalmena. Aurrean topatzen duguna baieztatu eta beste batzuk ezeztatzeko boterea. Bide batetik joan edo beste baten aldeko hautua egitea.

Bidea hautatzeak kezkatzen gaitu. Eskuinak edo ezkerak. Goikoak ala behekoak. Urdinak edota gorriak. Zuriak edo beltzak. Erabakia hartzera iritsi aurretik egindako bideak, ordea, garrantzia handiagoa dauka. Horrek ematen du zilegitasuna. Gardentasuna. Onespina. Errespetua. Horrek betetzen gaitu. Indartu. Lasaitu.

Besteak baldintzatzea erraza da. Zabaldu dezagun bidea erabakiak askatasunez hartzeko. ■■■



Anduko Patxi, Kukuuarri eta Zaragueta

Irailaren 11n hil zen Patxi Lertxundi, Andu baserriko aitona. Gizon ekintzailea izaki, lan ugari egin zuen herriaren alde; besteak beste, Kukuuarriko gurutzearen egileetako bat da, eta bera izan zen Zaragueta Herri Eskolaren bultzatzaileetako bat. Artikuluarekin, aitortza egin nahi izan zaio Patxik herriari emandakoari.

Testua: **Xabier Lizaso.**
Argazkiak: **Utzitakoak.**

Askorentzat gauza jakina da Don Sotero Plazaola apaiza Orioko Herri Ikastolaren sortzaileetako bat izan zela. Beste bi herritarrekin batera eman zituen lehen pausoak ikastolaren sortze prozesu horretan: lagun min zituen Patxi Zaldia *Linternero* eta Martin Lizaso *Erlojero*arekin, frankismo bete-betean (1971), ikastolak ilegal edo alegalak ziren garaian.

Legaltasunaren ertzean eta zigorraren arriskuan ibili ziren hiru herritarrek tratua egin zuten beren artean, arazoak sor zitezkeelakoan: Patxi eta Martin ezkonduetako gizonak zirenez, paper ofizialetan ez azaltzea erabaki zuten, eta Don Sotero apaizak bakarrik emango zuen izena. Badaezpada. Izan ere, modu horretan, gauzak okertzen baziren, apaizak bakarrik izango zuen kartzelarako arriskua, eta hura zigortzea zailagoa izango zen beste bi herritarrek baino.

Halere, aurrerago, lanean hasi eta 30 egunera, herriko guraso eta gazte mordoska gehitu zen proiektua aurrera ateratzeko asmoarekin. Jo eta ke ibili ziren. Hemendik, nire esker ona lanketa hartan parte hartu zuten guztiei.


Ikastolaren sorrera aipatu eta gero, zer dakigu Zaragueta Herri Eskolaz? Nor izan zen eskola sortzearen ideia izan eta 1970ean gauzatu zen arte lan egin zuena? Nola sortu zen? Zergatik? Horren gaineko argibide batzuk ematea da, besteak beste, artikulu hau idaztera eraman nauen arrazoietako bat.

Andu baserriko aitona, Patxi Lertxundi Argiñena, joan den irailaren 11n hil zen, 97 urte zituela. Haren heriotzaren berri izan nuen nuen, berarekin izan nuen azken elkarrizketa etorri zitzaidan burura. Zaragueta eskolaren sorrerari buruz jardun genuen berriketan, hain zuzen ere. Urte luzez, nik ez nuen jakin Anduko Patxi Zaragueta eskolaren sorreran ibilia zenik. Haren hiletan jabetu nintzen herriko jende askok ere ez zuela horren berri. Gizon apa-
la zen Patxi, eta argia bezain fina. Haren lanaren garrantzia ekarri nahi dut argitara, aitortza egiteko.

Kukuarriko tontorrean dagoen gurutzea jartzeko lanetan aitzindari izan zen Anduko Patxi, Pako Barjacobarekin batera. Beste hainbat herri-lanetan ere ibili zen: hondartzako eskoilera egiteko harriak eramaten Itxaspeko harrobitik; orain kultur etxea den eraikinean lehen zegoen maisu-maistren etxea altxatzen; Orioko lur-eremuaren barruan ura bilatzen (hondartza aldekoak, San Juangoa, Katxinakoa, Andukoa bertakoa). Katxinakoaren kasuan, ur-biltegia ere berak proposatu eta bultzatuta egin zuen Orioko Udalak, gehienen iritziairekin kontra, haiek uste zutelako mendi horretako urarekin ez zela beteko depositua. Ura bilatzeko zaletasun hori bere aita Agustin zenarengandik zetorkion Patxiri. Agustin ur-aztia zen, eta ura bilatzeko bazuen bere tresna partikularra, soka bat muturretik berun puska zeukana. Hark bideratzen zuen Agustin ur-putzuetara.

Nire belaunaldikoek gogoan izango dute Patxiren emazte Elena Land Rover txurixkan esnea saltzen herritarrei, kalean gora eta kalean behera. Patxi zinegotzia ere izan zen Orioko Udalean, frankismoaren azken urteetan, eta lan ederra egin zuen herriaren alde.

Testuingurua ulertu beharra dago haren lana hobeto ulertzeko. Gaurko oriotar gazteei esan behar diet Zaragueta eskola sortu aurretik, Orion ez zegoela hezkuntzarako eraikinik. Bestetik, Orion eskolarik ez zenik ezin dut esan. Haurrak eskolara joaten ginen, baina ez



Kukuarriko gurutzea egiten ari zireneko argazkia. Irudi txikian, Patxi Lertxundiren erretratua.



Kukuarriko gurutzearen inaugurazioa.

ORIOKO LURRETAN URA BILATZEN ERE JARDUN ZUEN PATXIK, ETA AURKITU ERE EGIN ZUEN

ESKOLAK EMATEKO ERAIKIN BATEN BEHARRA IKUSI ZUEN ZINEGOTZIA ZEN GARAIAIN

genuen horretarako eraikin jatorrik. Duela urte pare bat bota zuten kofradian, bi gela zeuden eskolako gela gisa erabiltzen zirenak. Maisu-mais-tren etxean beste bi gela ere baziren. Goiko kalean zeuden soto batzuetan, baziren beste espazio batzuk eskolak emateko erabiltzen zirenak... Gaur ezagutzen dugun eskola-eraikinik ez zegoen ordea. Zientzia-fikzioa zen. Hala ere, oso pozik bizi ginen ume oriotarrok.

Patxik hezkuntzarako eraikin baten beharra ikusi zuen eta, zinegotzia zenez, lanean hasi zen. Ez zen erraza izango eraikina egiteko aurrekontua lortzea eta proiektuan sortutako beste hainbat oztopo gainditzea. Gero, obrak luze joan ziren. Etxeko sukaldetik ikusten nituen lanean langileak, eta askotan obrak

sortutako zaborretara joaten ginen jostatzera. Oraindik gogoan dut nola sartu nuen oso-osorik belaunean egur batetik ateratzen zen herdoilak jotako iltze bat. Jolas-toki ederra zen guretzat Zaragueta eskolako obra berria.

Zergatik jarri zioten Zaragueta izena eskolari? Hau da beste kontu bat harridura handia sortu izan didana. Nor zen Zaragueta? Gaur egun konturatzen naiz Patxik eta bere inguruan ibili zirenek irizpide ederra izan zutela eskolari izena jartzerakoan.

Gaur egun ikastolaren HH eta LHko eraikina dena izan zen Zaragueta eskolako lehen eraikina. Nik bezala oriotar askok izango dute oraindik buruan eraikinaren inauguraziora Juan Zaragueta bera etorri zela. Zaragueta Madrilen bizi zen. Bertako unibertsitateko irakaslea zen. Oriotar askok ez dute jakingo Orion ez ezik, Madrilen ere badagoela Zaragueta eskola bat: Colegio Juan Zaragüeta. M-40 errepideari pegatuta dago ia-ia. Piano-emanaldi mordoska egindakoa naiz han. Maitasun handiz hartzen ninduten hango irakasleek oriotarra naizelako, Zaragueta bezala. Madrilen ezagutu ditut Zaragueta zenaren ikasle batzuk ere, eta ondo gogoan dut maitasunez gogoratzen zutela maisu oriotarra.

Zaragueta Madrilgo unibertsitateko irakaslea izateaz gain, Espainiako Literatur Saria jaso zuen. Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako bat ere bai 1918. urtean, eta erakunde horrek Euskaltzaindia sortu zuen 1919an. Anjel Lertxundik gogorarazi izan duenez, 1970ean Orioko eskola inauguratu zutenean, Juan Zaraguetak elebitasunaren garrantzia aipatu zuen, zer inportantea zen eskolan euskara sartzea eta ikasleek heziketa bi hizkuntzetan jasotzea. Beraz, bazen norbait Juan Zaragueta apaiz oriotarra. Ederki aukeratu zuten izena eskolarentzat.

Patxik 92 urte zituela izan nintzen azkenekoz berarekin. Aurrez aurre kontatu zidan Zaragueta eskolako istorioa. Bizitzaren bukaeran atzera begiratuta ohartzen gara nonbait zeri ematen diogun garrantzia. Patxi harro zegoen egindako lanagatik. Ez naiz harritzen.

Don Soterok ez ezik, zuk ere, Patxi, zutabe bat jarri zenuen gure herrian. Bi eskola zoragarri ditugu herrian. Patxi gogoan, eskerrik asko!.



Portu
Erreteta - Jaitzea

Kazolita, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti



BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zointiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldi-rako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.

- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopina, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8

943-83 47 04

Fax-a: 943-13 09 38

orio@ikastola.eus

www.oriokoikastola.eus



MENDIZABAL
AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO

943-83 11 75 · 645 70 84 91

mendi@arotzgi.net



MOLA MOLA
ORIO BEACH BAR · GOOD VIBES

Hondartza bidea, 2
943-58 00 37
molamolabar.com · molamolabar



Orefa
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Aia, zabal bezain eder, argazkitan

AIKO XV. ARGAZKI LEHIAKETA

ARGAZKIAK: AIAKO UDALA

"Aia", horixe zen aurtengo argazki lehiaketarako jarri zuten gaia, sinplea bezain zabala, bakoitzaren irudimen eta interpretaziora aske. Eta herriaren edertasuna ederki asko islatzen duten 30 lan jaso zituzten bueltan. Urriaren erdialdera Aiako Kultur Etxean jarri zituzten ikusgai, eta erakusketa ikustera joan diren herritarrek izan dira epaile. Gehien gustatzen zitzaizkion hamabi lan aukeratu behar zituen bakoitzak, norenak ziren jakin gabe, eta boto gehien jaso dituztenekin datorren urteko egutegia osatuko du Aiako Udalak. Dagoeneko kontaketa eginda, honakoak dira herritarrei gehien gustatu zaizkien argazkietako batzuk. Aiako Udalak argazki lehiaketa antolatu duen hamabosgarren aldia izan da aurtengoa. ■■■





Hamar urte



ELI HUEGUN

Badaramatzagu egun mordoxka bat azken hamar urte hauen bilakaera jasotzen duten artikulua bazter guztietatik ateratzen zaizkigula. Ba, barkatu, baina hau beste bat gehiago izango da.

Zertan aldatu garen baino, zertan eboluzionatu dugun pentsatzea zuzenagoa iruditu zait. Aldaketak zenaren eta denaren arteko diferentzia markatzen du, eta egia esanda, bat-bateko hausturarik egon ezean, ezin jakin iraganaren eta orainaren arteko muga hori non jarri.

Bide horretan, lagun batek duela hamar urteko talde argazki bat bidali dit, eta itxuraz behintzat, aldea nabarmena da. Asko pentsatu gabe esan diot ez naizela kontziente izan aldaketa horiez. "Nola ez ginen ba aldatuko? 20 urte genituen, eta orain 30 ditugu", erantzun dit. Eta arrazoi du, eboluzioa konstantea da.

Egunerokotasunean sartuta agian ez zara konturatu, baina batzuetan komeni zaigu pixka bat gelditu eta iragandakoaz pentsatzen jartzea. Duela hamar urte nahiko genukeen gaur gauden lekuan egon?

Sozialki moldatu gara. *Mainstream* hitza (korronte nagusia, ingelesez) mainstream bihurtzearen (kar-kar-kar); eta nago, zer zen orduan korronte nagusi eta zer den orain aldatu dela. Desberdinari barre egitea mainstream zen, eta orain hori *kuñadismoa* da. Lehen ere bazela iruditzen zait, baina ez genion hala deitzen, eta orain bai.

Alboratutako errealtateak lortu dugu zentrorra ekartzea, ahotsa hartzea eta bizipenak aldatzea. *Mainstream* zena hain mainstream ez izatea.

Bide honetan gustatu zaizkit gertatutako gauza asko. Egin ditugun gauza asko. Adibidez, gustatu zait kirolak izan duen bilakaera; gaztetxoek ageriko emakume erreferente gehiago dituzte eta hedabideek eurei buruz hitz egiten dute. Asko falta da oraindik, baina hasi da hazia loratzen.

Osasun mentalaz ere hitz egiten da publikoki, eta tabua askoz ere gutxiago da tabu. Dibertsitatea gehiago onartzen da, eta arrazakeria kasuak, justifikatu baino seinalatu egiten dira. Pertsona askoren bizia hobetu du horrek guztiak, eta gure gizartea ere bai. Ez da gutxi.

Hamar urte hauetako bidearekin gustura sentitu ote zaren galdetu dut lehen, zinez espero dut baietz erantzungo zeniola. Hala bada, bejondeizula. Zalantzatan bazabiltza, alabaina, pentsatu kontua, ahal den bitartean behintzat, mejora egitea dela.

Biharko atzo da gaur. ■■■

**BATZUETAN KOMENI
ZAIGU PIXKA BAT
GELDITU ETA
IRAGANDAKOAZ
PENTSATZEN JARTZEA**

AIAR *bat gehiago*



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



Usurbil Autoak
TXAPA-PINTURA-MEKANIKA

30 URTE ZERBITZUAN

DESINFEKZIO GUNEA

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79

Jarri zure
iragarkia

KARKARAn

943-83 15 27

SU KIA
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, beheka 1
ORIO - 943-89 21 29



%100 etxean egina

PIZZERIA

KALETA

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



Zarageta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezakuntza.net

XS arkitektura www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 beheka • ZARAUTZ • 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Beilatokia
Lekualdatzeak
Eginbide guztien tramitazioa



Zarautz

24 ordu
zure zerbitzura

Araba kalea, 35
ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu hamar urte barru? (III)



TESTUA: ORIOKO HERRI IKASTOLA

Orioko Herri Ikastolak aurten ditu 50 urte. Herritarren borondateak bultzatua eta hutsetik sortua, ibilbide oparoa izan du, eta zerbait erakutsi badu ametsak egi bihurtzeko gaitasuna da. Ikastolen helburua hasieratik izan da hezkuntza arautuaren bidez euskararen transmisioa bermatzea eta bizitzako arlo guztietara zabaltzea. Esan eta egin. EAEko hezkuntza-sisteman D eredua zabaltzeko aitzindari eta akuilu izan da ikastolen sarea.

Orain, hamar urte barruko Orio amestu behar dugu. Orio asko aldatu da azken 50 urteetan. D ereduko bi ikastetxe ditugu, euskara etxean ez ezik, kalean, lanean, administrazioan... erabiltzen da eta horri guztiari esker, Orio euskararen arnagune da.

Hala ere, konfinamenduak erakutsi digu haurrengan kanpoko eragile batzuk, hala nola, teknologia berrien bidezko komunikazioak, asko eragiten dutela hizkuntza-mailan eta hizkuntza-ohituretan. Horra hor erronka berri bat. Horrez gain, ikuspegi soziologikotik, Orio asko aberastu da jatorri desberdinetako etorkinen etorrerarekin, baina, aldi berean, egoera horrek behartzen gaitu, asimilaziorik gabe, herritar horiei gure hizkuntza eta kultura transmititzera. Horra hor bigarren erronka nagusia.

Ateak zabalik dituen herri euskaldun eta parekide batekin amesten dugu. Duela 50 urte amestutakoa lortu bagenuen, orain ere lortuko dugu. ■■■






TESTUA: ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Hamar urte barru, inolako zalantzarik gabe, Orio euskaldun bat irudikatzen dugu. Orain arte bezala, euskara nagusi izango den herri bat dugu buruan, euskaraz pentsatu, komunikatu eta biziko dena. Ahozkoan zein idatzizkoan, euskara ederra, aberatsa eta bizi-bizia erabiliko duena, eta oriotarrari nor izaten lagunduko diona.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira gure herrian eta munduan oro har, eta ezin esan dezakegu euskararen egoera, Orion ere, sendoa denik. Azken inkesten arabera, etxeko euskararen erabilera nabarmen jaitsi da. Gero eta gehiago dira familietan egiten diren hizkuntzak, jatorri desberdineko oriotarrak, eta guraso euskaldunak ez dituzten ikasleak. Pantailak ere asko ugaritu dira. Ez dago esan beharrik euskararen presentzia eskasa dela horietan, eta, gazteek eta helduek pantailen aurrean pasatzen ditugun orduak kontuan hartuta, kezkatzekoa da.

Erronka berri horien aurrean, ezinbestekoa izango da eskolen, familien, erakundeen eta elkarten arteko elkarlana. Zaraguetatik lanean jarraituko dugu oriotar berriak euskalduntzen eta euskal kulturaren murgiltzen. Eta seguru gaude denon artean egin egingo dugula, hamar urte barru Oriok euskalduna eta euskaltzalea izaten jarraituko duela... *inshala!* ■■■



Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Ui! Txoria!

Seiko sudoku hau TXORIA hitza osatzen duten hizkiez egina da. Hutsuneak bete behar dituzu, eta horretarako, kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

DOMINOAN


Ba al dakizu zer jaten duen aldameneko txoriak? Bada, euliak, eltxoak, ehunzangoak, zizareak, kakalardoak eta sitsak, eta sei elementu horiekin domino segida hau osatu beharko duzu.

	X		T	O
	T			A
		T		A
X				R
		I		X
	R		I	O



Itzala

Horra non pausatu den txoritxo! Aurki ezazu irudi honen itzal zuzena.



Mezua

Erabili marrazkitxoan alfabetoa eta txoritxoak zer dioen jakingo duzu. Esaera ezagun bat da.



ALFABETOA



pareak bai!

Lotu irudi bakoitzari bere izena. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



MITXOLETA



LIKANTROPOA

ERPINA



SAIA

TXERMENA




TXOLARREA



KUKUSOA



AHO-GINGILA



Handitik txikira

Ordna itzazu flamenko berezi hauek handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Gainera margotu egin behar dituzu, honela:

- 1.- Isats-hegalak gorritz eta gorputza arrosaz.
- 2.- Isats-hegalak laranja eta gorputza gorritz.
- 3.- Isats-hegalak laranja eta gorputza urdinez.
- 4.- Isats-hegalak horiz eta gorputza berdez.
- 5.- Isats-hegalak berdez eta gorputza grisez.
- 6.- Isats-hegalak arrosaz eta gorputza zuriz.



Orbela

Bost txatal hauetatik bi irudi nagusitik hartuta daude eta beste hirurak engainariak dira. Bereiz itzazu.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat aparkalekuak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamendua- rekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko Portuan. Telefonoa: 649 22 87 87.

Garaje ibxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Informazio gehiagorako, deitu 615 15 03 14 zembakira.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta ha- rrrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tele- fonoa: 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbita- sunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adine- ko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko

prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Telefonoa: 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zembakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Telefonoa: 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo ta- bernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horretan eta baita prestutasun osoa ere. Jarri harremanetan honako telefono zembakian: 695 37 82 60. Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguria ordaindua du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbileko baserri batean. Interesik izanez gero deitu 607 66 86 03 zembakira. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzorur baten bila dabil alo- kairuan Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	01:31 eta 13:45	07:27 eta 19:59	●
2	02:14 eta 14:28	08:11 eta 20:40	●
3	02:53 eta 15:09	08:52 eta 21:19	●
4	03:32 eta 15:50	09:33 eta 21:59	●
5	04:12 eta 16:32	10:15 eta 22:39	●
6	04:53 eta 17:16	10:58 eta 23:22	●
7	05:36 eta 18:03	11:45	●
8	06:23 eta 18:54	00:07 eta 12:34	●
9	07:16 eta 19:52	00:56 eta 13:30	●
10	08:18 eta 21:04	01:52 eta 14:34	●
11	09:34 eta 22:32	03:00 eta 15:51	●
12	10:57 eta 23:57	04:18 eta 17:19	●
13	12:14	05:46 eta 18:30	●
14	01:03 eta 13:16	06:53 eta 19:27	●
15	01:53 eta 14:05	07:45 eta 20:12	●
16	02:34 eta 14:46	08:28 eta 20:50	●
17	03:09 eta 15:22	09:06 eta 21:24	●
18	03:40 eta 15:55	09:42 eta 21:57	●
19	04:10 eta 16:26	10:16 eta 22:28	●
20	04:39 eta 16:58	10:50 eta 22:59	●
21	05:08 eta 17:29	11:23 eta 23:30	●
22	05:39 eta 18:02	11:56	●
23	06:12 eta 18:38	00:01 eta 12:31	●
24	06:49 eta 19:19	00:36 eta 13:10	●
25	07:32 eta 20:09	01:16 eta 13:57	●
26	08:27 eta 21:13	02:05 eta 14:54	●
27	09:36 eta 22:31	03:09 eta 16:05	●
28	10:52 eta 23:45	04:25 eta 17:19	●
29	12:02	05:38 eta 18:23	●
30	00:45 eta 13:01	06:40 eta 19:17	●

FARMAZIAK-AZAROA

ORIO

3, 16, 17, 20, 21, 22, 23 eta 24. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

11 eta 12.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
7 eta 18.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
30.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
8, 14, 18 eta 19.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
9.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
4, 5, 10, 28 eta 29.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
15 eta 27.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
1, 25, 26 eta 31.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
2 eta 6.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Iragarkietarako bakoia. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

AGENDA

ORIO

AZAROAK 8-19

Erakusketa: Iosu Garairen argazkiak.
Kultur Etxeko areto nagusian.

AZAROAK 8, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Miriam Mendoza.
Kultur Etxeko areto nagusian, 17:30etan.

AZAROAK 12, OSTIRALA

Ikuskizuna: Erradikalak ginen antzezlanak.
Arraunetxeko aretoan, 19:00etan.

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

Hitzaldia: Elkarbizitzako eskubide eta betebeharrak.
Kultur Etxeko areto nagusian, 17:00etan.

AZAROAK 20, LARUNBATA

Kontzertua: Nogen.
Kultur Etxeko areto nagusian, 19:00etan.



AZAROAK 23, ASTEARTEA

Ipuin kontalaria: Ines Bengoa.
Kultur Etxeko areto nagusian, 17:30etan.

AIA

AZAROAK 6, OSTIRALA

Kontzertua: Esti eta Mikel Markez.
Aiako probalekuan, 22:30etan.



BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Solbuespenik gabe.



IGOGAILUKO
ZARATAK



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKITUAK
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE
EDIERAK

bertako
Igogailuak-ekin

www.bertako.eus



Puntua jarrita

Ibon Arruti Aldape.
(Doinua: Haizeak bidali du.)

1

**Izertia bai franko
banderarikan ez!**

Izerdiya bai franko
banderarikan ez!
saltsa sortzeko puntu
oso ona berez
baña enaiz eroriko
joko hortan errez
urte ona egin deun
ustetan gaudenez.

2

Aukerak izan dira
bandera lortzeko
pare bat oso garbik
egiya esateko
merituk egin dira
hori betetzeko
merituk egin dira
bat irabazteko.

3

Jendiak etzun uste
hola ibiltzerik!
iñork etzun ematen
gutaz xentimorik
kiniela danetan
Oriyo atzetik
baña oriyorekin
ezto fiyatzerik.

Hurrengo bertsolaria:

Iñaki Verhegge.

Puntua:

Parrandatik parkera,
a ze gozamena!.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ibon Arrutiri jarri dio puntua Josu Arrutik: "Izertia bai franko banderarikan ez!". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



ZORIONE MÉNDEZ

ORIOTAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41